

egitez eta arduraz ezbardinak, gorputz bateko atalak euren artean lez, zer egin-kizun dauken ikusita, batzuk bearrez-koagoak, besteak baino. Ez al da olan?

— Jum! Martingala guztiok ez ete do-zuez zuok asmau, gero, abaderik ezak eraginda?

— Tira, Txomin, bai ta ez erantzungo deutsut: abaderik ezak eraginda, etorri da Eleizea bere lekura, abade ugari egoala be egon bear eban lekura: eleiztar-rak izan, ez dira iñoiz be izan «bigarren mailako txontxongilloak», abadeak zer esan edo agindu, atara itsuan jartzen izan diranak. Baina gizaldietan orrebes-teraino jatsita egon da ta...

— Eta... gaur be olantxe jarraitzen dau leku baten baino geiagotan, Kel-men jauna. Eta nireztat olantxe dago obeto, egon be. Asko dakigu guk zer zel-dan dan, ezer erakutsi ta aginduteko.

— Erakutsi, erakutsi... bai, Txomin. Guk abadeok gauza askotan zuok eleiz-tarrok baino geiago jakin geinke, libu-rutatik ikasita, baina zuok beste askotan ori ta geiago, bizitzak berak erakutsita. Eta agindu, agindu danon artean, parroki danetan egon bear dauan kontsejuaren eritxiak jasota gero, otoitz eginda, Eleizaren gaurko jokabi-deak aztertu ondoren, danen artean era-bagitakoa abadeak onartu ta aurrera eroaten aleginduko da. Ez al da au ede-rrago, Jesusen Ebanjeliotik urrago da-goan bidea?

— Egia esan, alkateak be ortxe dauka bere kontsejua eta edozein agintarik be-rea, eta naiz bera nagusi izan, ezin leike nai dauan dana egin. Baina ez nekian nik Eleizan be olan zanik.

— Bardin, bardin ez da, Txomin. Ba-dira Eleiz-bizitzan jokabide ta lege ba-tzuk «kontsejupean» ez dagozanak, ezin leiteke dana dipi ta dapa botoz erabagi ta aurrera. Baina geienbaten bai, Eleiz-barrutiko Gotzaina buru dala. Ala Espi-ritu Santuaren argia nok dauka? Aba-deak bakarrik?

— Ez, ez, orrenbeste be ez. Geu be zeozer ikusi ta egiteko kapaz izango gara, ezta?

— Kapaz zaree gauza askotarako, eta kapazago egin bear dozue gaurko eleiz-tarrok, zeuon gain eleiz-ardura geiago artzeko be.

— Au be itzala da, gero! Leen ixil ixi-lik abadearen esanak egiteko prest; eta gaur agindu egin bear dogula...

— Epa, epa, Txomin! Ez orpotik bu-rura kolpean jo. Ez menpeko, ez gaine-ko, bai alkar laguntzeko, gauzak eraba-gi ta egiteko.

Eta bien bitartean, Txominek «domi-nistikun» bat be ez eban jo. Astirik bai ala? Berotu edo egingo zan ta.

*Eleiza barriztu gura
bere izate ta itxura;
Onetan dira gaur eguneko
gure milla estugura.
Ez egon auzo modura,
sartu guztiok jokura;
gure Eleiza ekarri daigun
zor yakon lekura.*

«Nork Aginduten dau Eleizan?»

Alako egualdi zatarra egoan, egon be, eguerdioste aretan! Txomin, gizon kez-katsua beti be, an zan abade etxeko atarian, egualdi txar ta guzti be. Atxiss... sekulako «doministuna» jo eban, lauter-dietako kanpai tankada tankadan. Beste barik igarri eutsan Kelmen jaunak Txomin an inguruan zala.

—Zatoz, zatoz barrura, Txomin. Egualdi onegaz be ezin egon etxean!?

—Arratsaldeon leenengo ta bein, Kelmen jauna, itxura baten ain ona ez-padago be.

—Zer darabiltzu, Txomin, atxis ta patxis. Makalik, ala?

—Burutik beerakotxua edo. Au ez da ezer. Burutik beerako astunagoak yator-kuz aspaldion, Kelmen jauna.

—Zer, gaur be batu dozu nunbaiten «azur gogorren bat, ezta?

—Or nunbaiten ez, Kelmen jauna, eleizan bertan eta zeuk esanda gainera. Eleizan aginduteko abadea naiko ta lar ezpalitz lez...

—Aor ba, Txomin guria, gaur be tri-perreagaz. Ze okerrik esan dot, ba, Txomin?

—Oker edo moker, nik zeetu ezineko azurrak botaten dozuz aspaldion: bateko Eleizan danok bardinak gareala, beste-ko gauzak danon artean aztertu, erabagi ta egin bear doguzala... eta beste olako «artaburu» asko botaten deuskuzuz.

—Txomin, ori baino ez eta ain estu? Ain eztarri zulo txikia dozu, ala? Operazinoren bat egizu lenbailen, aundiagorik be iruntzi bearko dozu ta. Eleiztar guztiok bardinak eta anai arreba gareala argi dago, abade ta Aita Santua bera be barruan dirala. Izatez bardinak izanik,